



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 17a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, alderdi politikoei 1.314.612,30 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2015eko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko diru-laguntza gisa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak agertzen du arbuiatu egiten duela Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta Ogasun propioa defenda ditzan gure foru araubidearen aurkako eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso ooren aurrean. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2016. urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Nafarroan finantza-erakunde publiko bat berreskuratzeko aukerak aztertze beharrezkoak diren jarduketa eta baliabide guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan “Tasa arrosa” deiturikoa existitzeari, horren zenbatekoari eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan daukan eraginari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, egiten duen lan-eskaintza publikoan bete daitezzen gaztelaniazko ereduko eta Ingelesez Ikasteko Programako irakasle-beharrizanak. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitatekoen bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatzeko aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Garapen Ekonomikora-ko Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa.

ZIOEN AZALPENA

Garapen Ekonomikorako Departamentuan ikusienez, Nafarroako Zentro Teknologikoei

laguntzeko 2015eko ekitaldian aurrekontuetan ezarritako diru-kopuruak ez dira aski.

Horrenbestez, behar horiei aurre egiteko, kreditu-gehikuntza ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 48. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. Kreditu-gehikuntza ematea.

2.175.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen da, ekitaldian Garapen Ekonomikorako Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Zenbateko hori aurrekontu kontu-sail honetan aplikatuko da: 180011 18210 7309 467300 "Zentro teknologikoetarako ekarpenak: CENER – CIEMAT Fundazioari funtsak ematea maileguen amortiziorako".

2. artikulua. Finantzaketa.

Kreditu-gehikuntza hori aurrekontuko kontu-sail hauen kargura finantzatuko da:

180011 18210 4701 467300 Bono teknologikoak ezagutza arloko zerbitzu intentsiboetarako	500.000,00
84001 18210 7701 467303 kontu-saila, "I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat. PO FEDER	500.000,00
180011 18210 7701 467307 Bono teknologikoak proiektu teknologikoetarako. PO FEDER	200.000,00
125005 16420 7709 467902 Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak	500.000,00
180003 18330 6031 425200 Kudeaketa energetikorako plana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan	275.000,00
180003 18330 2276 425200 Energia aurrezpen eta eragimenerako laguntza teknikoa	200.000,00
GUZTIRA	2.175.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, alderdi politikoei 1.314.612,30 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2015eko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko diru-laguntza gisa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Alderdi politikoei 1.314.612,30 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2015eko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko diru-laguntza gisa”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea, alderdi politikoei
1.314.612,30 euroko kreditu berezia
ematekoa, Nafarroako Parlamenturako
2015eko hauteskundeetako gas-
tuak finantzatzeko diru-laguntza gisa**

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak bere 44. artikuluan ezarri duenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak diru-laguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle batasunei, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko.

Foru lege beraren 48. artikulua xedatuaren arabera, berriz, Nafarroako Gobernuak, Kontuen Ganberak hauteskundeetako kontabilitateei buruzko txostena igorri eta ondoko hilabetean, foru lege baten proiektua aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, esleitu beharreko diru-laguntzen zenbatekoa hartzen duen kreditu berezia emateko; aipatu diru-laguntzak, aldiz, Parlamentuak proiektua onetsi eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Foru lege honen xedea hau da: egungo hauteskunde arauterian ezarritako agindua betetzea, 2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzen laguntzearen.

1. artikulua. Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle batasunentzako diru-laguntza gisa, 1.314.612,30 euroko kreditu berezia ematea onetsi da, 2015eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako egin ziren hauteskundeek kanpainako gastuak finantzatzeko. Aipatu kredituaren zenbatekoa 2015era luzatutako 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontu-sail honi aplikatuko zaio: 010001-0001-4819-912100; izena, “Alderdi politikoentzako diru-laguntzak”.

2. artikulua. Aipatutako kreditu berezia gastuen aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatuko da, ondotik zehazten diren zenbatekoekin:

– 170002-15200-4819-242107, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, kualifikazio ibilbideen programetarako” izenekoa; 957.711,90 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242109, “Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, enplegu aukerretarako ibilbideen programetarako” izenekoa; 44.396,19 euroko zenbatekoa.

– 429000-42010-4609-322100 kontu-saila, “Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko” izenekoa; 312.504,21 euro.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko osoko zuzenketak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Azterlan bana has dezan gure erkidegoko prostituzioaren eta sexu-esplotazioaren egoeraz, halako ikerketarik ez dagoenez gero.

2. Arazoa aztertzeko lantalde bat sor dezan, gizaki-trafikoaren aurkako erakundeekin harremanetan jarriko dena eta sexu-esplotazioa pairatzen duten pertsonen laguntzeko eta mafien aurka modu eraginkorragoan borrokatzeko modua jorratuko duena. Halaber, lantalde horrek helburu izanen luke sexu-esplotazioaren eta -trafikoaren biktime direnei laguntzeko plan bat taxutzea.

3. Bere elkartasuna adieraz diezaien sexu-esplotazioaren eta -trafikoaren biktimei.

4. Zenbait ekintza egin ditzan Nafarroako gizartearen sentsibilizatzeko aldera sexu-esplotazioa pairatzen duten emakumeen dramari buruz eta sexu-esplotazioaren onarpen sozialak genero-estereotipoen betiketzean eta sexualitatea ulertzeko moduan dauzkan ondorioei buruz.

5. Informazio-kanpaina publikoak egin ditzan, bereziki pertsona gazteengan zentratuak, prostituzioa eta prostituzioan jarduten diren pertsonak estigmatizatzera bideratuak.

6. Gure erkidegoan emakumeen eta neskatilen trafikoak eta sexu-esplotazioak daukaten errealitatearen inguruko azterketa sakon bat egin dezan,

diagnosi gaurkotu bat eginez, zeina emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eskuduna den departamentuaren ardurapeko jarduketan plan egoki bat bihurtuko baita, Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean jasota dagoen moduan, non agerpen matxistetako bat bezala jasotzen baitira sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak, emakumeen eta neskatilen trafikoak eta sexu-esplotazioak.

7. Sexu-trafikoari eta -esplotazioari buruzko hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak egin ditzan Nafarroako gizartearentzat, indarkeria matxistaren aurka aritzeko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean jasotzen den bezala. Kanpaina horiek prebentziorako zein sentsibilizazio- eta informazio-neurriak hartzeko izanen dira.

8. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sexu-trafikoak edota -esplotazioaren biktimek izan diren emakumeek eskubidea dutela erreparazioa jasotzeko, bai banako gisa bai modu kolektiboan, eta horretarako, Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurri guztiak har ditzan, indarkeria matxistaren mota hau pairatu duten emakume guztien erreparazioa lortzeko, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean jaso bezala.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Zigor Kodean berriro sar dezan, Nazio Batuen Hitzarmenean adierazitako moduan, terzeria lokatiboaren figura (logelak alokatzen dituenarena), sexuaren industria eraistea ahalbidetuko duena.

2. Zigor Kodean sar dezan irabazpide-proxenetismoaren mota guztien zigorrerako figura, konstante hartu gabe prostituitzen den pertsonaren baimena badagoen nahiz ez dagoen.

3. Prostituzioaren eskatzea eta erostea zeha ditzan.

4. Sexu-esplotaziorako pertsona-trafikoaren gaitz erdeinagarria pertsegitzeko akordio global bat susta dezan, akordio hori sinatzen duten herrialde guztiek modu koordinatu eta eraginkorren jardun dezaten.

5. Sexu-esplotaziorako gizaki-trafikoaren kontrako lege integral bat susta dezan, zeinak preben-

tziarako baliabide egokiak ezarri, ofiziozko delituzazarpenera indartu, sexu-eruditun publikitatea saihestu eta esplotazioa pairatu duten pertsonen gizarte-babeserako eta errekupeazio integralerako zerbitzu eta programak martxan jarriko baititu”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak agertzen du arbuia egiten duela Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak agertzen du arbuia egiten duela Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak, Europako Batasunaren eta Estatu Batuen artean negoziatzen ari den itun-proiektuak ekar litzakeen ondorio negatibo sakonak aurreikusirik, TTIP delakoarekiko arbuioa agertzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia egiten duela Europako Batasunaren eta Estatu Batuen artean proiektu hau negoziatzen ari diren honetan darabilten ilunkeria, eta exijitzen du proiektua gardentasunez lantzea, bai eta herritarren eskubide guztiak errespetatzea ere; bereziki, osasun-, lan-, gizarte- eta ingurumen-eskubideak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jarrera hori azaldu eta

defenda dezan parte hartzen hark duen Europamailako organo eta gune guztietan; Erregioen Batzordean, besteak beste.

4. Nafarroako Gobernuak honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari: parte hartzen duen foro guztietan kontuan har dezala eta defenda deza Europako Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-hitzarmen baterako proposamen oro Europako Batasuna osatzen duten Estatu guztietan erreferendum baten bidez ebaztea, berretsia izan baino lehen; halaber, defenda deza la tamaina honetako aferei buruzko edozein negoziazio- eta politika-mota gardenki eta herritar guztiengana iristeko moduan egin dadin.

5. Akordio-proiektu hau negoziaziopean dagoen honetan nabari den ilunkeria dela-eta Nafarroako Parlamentuak agerturiko arbuioa publiko egiten da, horren berri emanez eskueran dituen hedabideetan, eta herritarrak TTIParen inguruan informatuta egon daitezen erraztu eta sustatuko da, berariazko kanpainen bidez edo Parlamentuaren ohiko jardunaren bidez.”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta Ogasun propioa defenda ditzan gure foru araubidearen aurkako eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso oren aurrean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta Ogasun propioa defenda ditzan gure foru araubidearen aurkako eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso oren aurrean.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure autogobernua eta Oga-

sun propioa defenda ditzan, gure foru araubidea eta Nafarroaren eskubide historikoak ezagutzen bide ez dituztenek edo onartu nahi ez dituztenek esparru politiko ezberdinetatik egindako eraso oren aitzinean.

Parlamentu honetan ordezkaturako alderdi politikoez konpromisoa hartzen dute, gure erkidegokoak ez diren foroetan soilik hartutakoak diren eta gure autogobernuari eragin diezaioketen erabakiak ez onartzekoa.”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2016. urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Nafarroan finantza-erakunde publiko bat berreskuratzeko aukerak aztertzeko beharrezkoak diren jarduketa eta baliabide guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2016. urtea amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan, non deskribatuko baitira Nafarroan finantza-erakunde publiko bat berreskuratzeko aukerak aztertzeko beharrezkoak diren jarduketa eta baliabide guztiak.” Erabakia heldu da Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2015eko azaroaren 17ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herritarrei finantzaketa-tresna publiko bereki bat ematearen garrantziaz jabetuta, Nafarroako Gobernua premiatzen du 2016a amaitu baino lehen txosten bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, non deskribatuko baitira Nafarroan finantza-erakunde publiko bat berreskuratzeko aukerak aztertzeko beharrezkoak diren jarduketa eta baliabide guztiak.”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan “Tasa arrosa” deiturikoa existitzeari, horren zenbatekoari eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan daukan eraginari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan “Tasa arrosa” deiturikoa existitzeari, horren zenbatekoari eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan daukan eraginari buruz”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat presta dezan, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialarekin lankidetzan, jakite aldera ea 'Tasa arrosa' –halakotzat ulerturik produktu beraren edo ezaugarri bertsuetako baten balioaren gehikuntza ulergaitza, produktu hori emakumeei zuzendua denean– existitzen den, zenbatekoa den eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan zer eragin duen”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, egiten duen lan-eskaintza publikoan bete daitezen gaztelaniazko ereduko eta Ingelesez Ikasteko Programako irakasle-beharrizanak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, egiten duen lan-eskaintza publikoan bete daitezen gaztelaniazko ereduko eta Ingelesez Ikasteko Programako irakasle-beharrizanak”

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan lan-eskaintza publiko bat egin dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide bidera dezan eta neurri egokiak har ditzan irakasleek beharrezkoa duten prestakuntzarekin jarraitu

ahal izateko eta, besteak beste, honakoa ahalbidetzeko: beren borondateari jarraikiz ingelesezko C1 maila lortzea erabakitzen duten irakasleek maila hori lortu ahal izan dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2016rako aurreikusita dagoen irakasleen kidegoan sartzeko irakaskuntzako lan-eskaintza publikoko 320 plazak mantentzako, eta hizkuntza-ereduen eta espezialitateen araberako ikaspostu-banaketak bere proposamena alda dezan, beharrizanen, enplegu-egonkortasunaren eta funtzio publikoan sartzeko ekitatearen irizpideekin bat”

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2015eko abenduaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

